

**OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA:
BILDUMAREN AUZKERPENA (16 liburuki)**

Bilbo, egoitza, 2005-IX-17

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Agurra

*A. M. Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Arratsaldeon guztioi.

Orotarikoa, orokorra eta ororentzat. Hala zehaztuko nuke nik azken hogeita bat urteetan Euskaltzaindiak ondu duen *OEH* lanaren izaera.

Orotarikoa, euskara bera hartzen duelako bere barnean, euskalki, idazle eta testu desberdinak agerian dituela.

Orokorra, bertara bildu baitira gai askotako esparru eta alorrak.



Ororentzat, euskaldun izan zein izan ez, bertan daudelako iturburu zorrotz eta zehatzak, euskal hitzen nondik norakoak zertzeko.

Bukatu du Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia*. Hortxe dago, guztion eskura, eginiko lana, 16 liburukitan antolatuta.

Badakigu, alabaina, horrelako proiektua aurrera eramateko, mota askotako ahaleginak behar direla. Ahalegin akademikoak eta instituzionalak, akademikotasunak ezinbesteko baitu, ikerlana behar den bezala egiteko, antolakuntzaren azpiegitura sendoa.

Izenak ere aipatuko dira, eta mahai honetan gaudenok horiek omendu nahi ditugu; eskertu ere bai, partaide askoren fruitua izan delako orduko hura.

Zuetako asko horien artean egon zineten, euskarak garai hartan behar zue-na egoki zertzen zeundetela uste izanda. Egun, bistan da, zuei arrazoi eman behar.

Latza izan daiteke horrelako lan baten egunerokotasuna. Latzagoa, zer esanik ez, bizirauteko itxaropenik ez daukan hizkuntza baten etorkizuna. Badago, beraz, euskara eskura, hiztegi honen bidez. Hiztegi bizia, bibliotekaren apaletatik kanpo ere hedatu behar dena, euskarari buruzko lan zinezkoaren eredu gisa.

Ospa dezagun, beraz, amaitu berri den lana. Zoriondu eta entzun ditzagun errealtate hori gauzatu dutenak. Ez ditzagun gaur eguneko eskabideak ere bazter utzi, hauek baitira ekinean jarraitzeko akuilu apartak. Hartara, agerian jar dezadan Euskaltzaindiaren zina, egun aurkezten duguna euskarri digitalean jarri eta gizarteratzeko, egunotako teknikak baliatuz.

Dakizuenez, prest dago gure erakundea lanerako, eta, jakina denez, aspaldikoari eutsiz, ekinean jarraitzen eta jarraituko du, euskal gizarteari gaurko lakoxe emaitza egokiak eskainiz.

Mila esker.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN HISTORIA

Bilbo, egoitza, 2005-XI-17

Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta

1. AURREKARIAK

Orotariko Euskal Hiztegiaren aurrehistorian eta, aurrekari bezala, Euskaltzaindiak Koldo Mitxeleneri emandako agindua aipatu beharra dago. Hain zuzen, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* famatua eguneratu eta eraberritzeari hasiera emana zen Mitxelena, horretarako Bizkaiko Diputazioak zenbait urtetan laguntzatxo bat ematen zuelarik. Koldoren zapata kutxetako fitxak ere egitasmo horren barruan kokatu behar dira. Egia esan lana astiro zihonan, ezinbestean, kontuan izanik egileak familia aurrera ateratzeko beste ogibide bat zuelako, Euskal Herritik kanpo, Torrelavegan, lehenik eta Salamancan, gero.

Dena zapuztu zen José Maria Martin Retanak Akademiaren baimenik gabe Azkueren hiztegia bi liburukitan «La Gran Enciclopedia Vasca» haren argitaletxean kaleratu zuenean. Orduko Euskaltzainburu D. Manuel Lekuonak Erakundearen protesta gogorra bidali zion, baina Martin Retanaren erantzuna abokatu batena izan zen, ikasketez hori bai zen gainera: *Euskaltzaindiak ezin nezake auzitara eraman, zeren eta ez baitu behar hainako nortasun juridikorik*. Zoritxarrez, 1969an egia zen eta egitasmoa bertan behera gelditu zen.

1976an Euskaltzaindiak Estatuak ez bakarrik nortasun juridikoa eman zion, are gehiago, ofizialtasuna ere Hego Euskal Herriko lau probintzietan. Hala eta guztiz ere urte batzuk igaro beharko ziren egitasmo berri bat gauzatu ahal izateko eta egokiera bi gertatu: 1. Mitxelena Salamancako Unibertsitateetik Euskal Herriko sortu berrira katedradun legez etorria izatea; 2. Autonomiari esker, bigarren Eusko Jaurlaritza indarrean jartzea, 1980ko apirilaren 9an Gernikan. Zenbait harreman izan ziren Gasteizen, hiri honetan bizi bai zen Mitxelena eta, Eusko Legebiltzarrak Bizkaiko Diputazioan hala erabakita, Gasteiz izango zen hiriburua, beraz bertan jarri zen martxan Gobernu eta Urdiaingo Jose Maria Satrustegiren etxean.

Aurrekariotan beste xehetasun garrantzitsu bat, Hondarribiko Jardunaldietan aztertu eta erabakitako Adierazpena dugu. 1981ko Eguberrietako ope-

rraldiaz baliaturik hiri horretan bildu bai zen Euskaltzaindia pare bat egunetan. Abenduaren 29ko bilkuran, euskaltzain osoek, aho batez onartu eta sinatu zuten Adierazpenean, honako hau irakur daiteke, besteak beste:

I HIZTEGIGINTZAZ... Hizkuntzarekiko plangintza orokor baten barnean sartua aurkitzen da hiztegegintza, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkio honi. Langintza horretan ordea, maila bat baino gehiago bada eta beren arteko lehenasuna kontutan eduki behar du. Euskal hiztegieta, adibidez: **Orokorra, Hiritartua, Espezializatuak**. 1 Hiztegi orokorrean, Euskaltzaindiak aspaldidanik hasiak dituen lanak aurrera daramatza ahalik eta lasterren buru emateko asmoz. 2 Bileran honetan beharrezkoa ikusi da batzorde bat sortzea, horretarako behar diren gaiak, ahalak eta lankideak biltzeko...

2. EGITASMOAREN ONARPENA

Hiztegiaren egitasmoari onarpen data formal bat jartzekoan 1984ko urtarilaren 20a jarriko nioke. Ikus, zer dion egun horretan Bilbon, Diputazioaren osteko Arbieto kalean Euskaltzaindiaren egoitzan, Zuzendaritza bilkuraren batzar-agiriak:

Bilduak: L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi, H. Knörr, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. L. Lizundia. Lehen gaian J.J. Zearreta ere egon da eta bosgarrenean R. Badiola eta R. M^a Artza ere bai... 9. Azkenik, Euskal Hiztegi Orokorren prestakuntza buruzko planaz hitz egitera etorri da Joseba Arregi, Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkariari ematen zaio sarrera. Beronek gaiaren aurkezpen bat, zenbait puntu azpimarratuz, egiten du, hala nola: lan asmoa, langileen asmoa, egilearen eta lan taldea, lankideen zereginak eta esamoldea, lanaren antolamendua eta diru baliabideak.- L. Mitxelena lan taldearen zuzendaria izango denak, zenbait puntu hobeto osotzen ditu eta batzarkideek euren iritziak agertzen dituzte, adibidez, egilea: Mitxelena izango da bere taldearen laguntzaz, baina argitaratzailea: Euskaltzaindia.- Lan taldearen ordainketak zer status izango duen galdetzen du. Arregi jaunak, aipatzen baitu «Asociación Cultural»gisako batez izan behar dela eta ez Euskaltzaindia edo Jaurilaritzako langile bezala. Erantzuten zaio «Campion-Broussain» Elkarte Filiala horretarako sortua dela eta horren «contrato de obra» baitan egingo liratekeela lan taldekoak.- Finantzabideak Jaurilaritzatik eta Diputazioetatik izango direla aipatu du Arregi jaunak, nahiz eta hiru Diputazioekin oraindik gestio guztiak bideratu gabe egon. Falta izanik, Euskaltzaindiak hartzen dituen diru-laguntzak ere baliagarri izan daitezkeela, uste du. Honetaz, ezezkua esaten zaio, zeren eta urteko asignazio arruntak bere aurrekontu propiorako behar bai ditu eta Hiztegegintza honetarako gainerako subentzio partida berezietatik etorri beharko luke, diru-iturri batzuk eta besteak nahasi gabe.- Bukatzeko, Euskaltzainburuak eskerrak ematen dizkio HIZKUNTZA Politikarako Idazkari jaunari, albiste pozgarri bat ematen bai dio, zeren eta bera Euskaltzaindiko lehendakari denetik, izan duen asmorik nagusiarena eta orain arte ganoraz bideratu ezin izan dena, orain badirudi egiteko bidean jarri dela.

Esan beharra dago, Arregi jauna Pedro Migel Etxenike Hezkuntza eta Kultura sailburuaren agindu eta instrukzio zehatzekin etorri zela, besteak beste, sailburua guretariko zenbaitzuekin izana bai zen Gasteizen, gehienbat Mitxelena berarekin noski eta Urdaingo apezetzeko sukaldean Satrustegirekin. Sukaldaritza beharrezko izaten baita honelako erabakiak hartu baino lehen. Noski Mitxelenaren alboan Ibon Sarasola zegoen, baina egitasmoaren hezur-mamia jadanik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean lanean ziharduen hirugarren batek prestatu zuen Mikel Zalbide, euskaltzain urgazleak, hain zuzen. Berau, gainera, Arbietoko egoitzara hortaz propioki etorria zen, nahiz eta une honetan datza zehatzik ez atzeman.

3. HERRI AGINTEEKIN HITZARMENA

Hiztegia martxan jarri baino lehen babesle izango ziren Herri Aginteekin hitzarmena adostu eta sinatu beharra zegoen, bistakoa denez. Aurreko data garrantzitsutik hiru hilabete baino lehenago, arin Administrazioaren abiadurako, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkarietan oraingoan, 1984ko apirilaren 12an, bildu zen berriz Jaurlaritzaren ordezkaria Akademiaren arduradunekin, alegia, Euskaltzainburua, Buruordea, Idazkaria, Diruzaina, *Jagon* Sailburua eta Idazkariordearekin. Zuzendaritzako batzar-agirian ikus daitekeenez, ez zen izan bertan Iker Sailburua, Mitxelena bera, alegia. Tratatutako 3. gaia bakarrik transkribatuko dugu:

Euskal Hiztegi Orokorra – Hitzarmena. Joseba Arregi Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkariak bidalitako zirriborroari, bakoitzak egin dizkion oharra aztertu dira. Pauta bezala J.L. Lizundiak ekarri duen zirriborroa hartzen da. L. Villasante, J. San Martin eta J.L. Lizundiak ekarri dituzte ohar zenbait eta onartzen dira. Knörr eta Lizundiak informatzen dute Hiztegiagintza horretarako lan bulegoaz sortu den aferaz, alegia, I. Sarasolak Gasteiz etorbidean bulego solairu bat alokatzeko asmotan omen dago eta, bien ustez, gestio bat egin beharko litzateke Ordezkaritza berrian toki gehiago izateko eta han kokatu Hiztegiagintzako bulegoa, Euskaltzaindiaren barne batetik eta aitzinkontuan merkeago, bestetik. Lizundia gelditu da Alberto Ansola foru diputatuarekin gestio bat egitekotan. Jarraian, Joseba Arregi jauna sartzen da eta denak onartzen ditu. Galdetzen zaio ia 2. Eranskinean agertzen den «Comisión de Seguimiento» delakoa paritariora izango den eta baietz esaten du, 4 Administrazioetik: Jaurlaritzak 1 eta Diputazio bakoitzak 1 eta 4 Euskaltzainditik.

Urriaren 25arte ez du Zuzendaritzak Hiztegiarekiko gai zuzenik aztertzen, agian Gobernu berriaren kargu aldaketarengatik. Batzar-Agiriaren 7. puntuak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorraz hitz egin da, zeren eta Ekonomi batzordeko kontseilariak Hitzarmeneko lehen eta bigarren artean, aldakuntza batzuk atzeman bai dituzte, bateron bat garrantzitsua gainera. Badaude, bestalde, batez ere Sarasolarekiko, arazo ekonomi batzuk lortu behar. Guzti horrengatik, Hitzarmenean eska-

tzen den Jarraipen batzordea luzatu gabe izendatu beharra ikusten da izen hauek (osoko hileroko batzarrean) proposatuaz: Idazkaria eta Ekonomi Batzordeburua (Diruzaina), karguen arabera – baina oraingo Diruzainak nolabaiteko inkompatibilitate akademikoa duen, Ekonomi Eragilea izango litzateke egokiagoa – J. San Martin eta P. Altuna.

Berriz abiadura hartzen duela bistakoa da, zeren eta segidako beste hiru Zuzendaritza bileretan gaia jorratzen da. Azaroaren 19an Arbieta kaleko egoitzan izandakoaren 5. puntuak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorren Jarraipenerako batzordea, arratsaldean Zuzendaritzarekin bilduko baita, bilera horretarako dakarren txostena irakurri du Euskaltzainburuak. Horretaz luzaz hitz da eta, bide batez, Mitxelenarekin eta baita Joseba Arregi Kultur Kontseilariarekin eta, agian, Paco Garmendia Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Zuzendariarekin egon beharra ikusi da.

Azaroaren 29an, Gasteizko Ordezkaritzan izandakoan, 3. gaiak hau dio:

Azkenik eta, gai nagusi bezala, *Euskal Hiztegi Orokorren* inguruko gaiak tratatu dira. Alde batetik, Jarraipenerako Batzordearekikoak eta, bihar, agian, euskaltzain osoen batzarrean aterako dituztenak eta, bestetik, Mitxelena-Sarasolarekikoak.- Jarraian Mitxelenarekin bazkaria bai dugu. Lehendabizi egoeraz sarrera bat egingo du L. Villasantek; bigarrenik, Campion-Broussainen kontratazioei buruz, J. M. Satrustegik; hirugarrenik, Inbertsio, ekipamendu eta antzerakoez, Juan San Martinek; laugarrenik, Jarraipen Batzordeaz hitz egingo da.

Abenduaren 6an, Durangoko udaletxean egindakoan, 1. gaiak hau dio:

Euskal Hiztegi Orokorraz, Federico Gonzalezek prestatutako kodiziloa, lezroez lerro irakurtzen eta aztertzen da eta zenbait aldaketa egiten zaizkio, hala nola: «Párrafo IV. Serán un contrato específico entre la R.A.L.V/Euskaltzaindia y Luis Mitxelena, VI. 2.1.Gehitu» académico de número y presidente de la Comisión de Lexicografía, kendu «Ibon Sarasola».VI .2.2. Ibonena sartuko balitz, hemen sartu.VII. Anexo II zena, hona pasatu; Besteak baieztatzen dira; «Fondo de reserva»rena nonbaiten aipatu beharra ere ikusi da. Zer pausu eman orain aztertu da.- Eneko Oregi arduratuko omen da Hiztegiarekiko harremanetan Jaurlaritzaren ize-nean.- Abokatuekin, astelehenean egongo gara. Mitxelenarekin, asteartean, 11n. Baita ere asteartean. Agian. Joseba Arregi eta Paco Garmendiarekin. Idazkariordea arduratzen da, bihar bertan, Mitxelena eta Joseba Arregi deitzeko. Hileroko batzarrean, lehen puntu bezala. «Euskal Hiztegi Orokorraz, gestioen berri ematea» gaie-tan sartzea erabaki da.

4. BILKURA AKADEMIKOETAN HIZTEGIA

Zuzendaritzak, Akademia erakundearen gobernu erakunde legez, Administrazio erakundeekiko kudeaketa eraman bazuen ere, osoko bilkurari, ez bakarrik kontua eman, baita ere, gai akademikoetan hola delako, onarpena edo-

ta birrespena eskatzen zion. Hara hor, hileroko batzar-agirietan agertzen diren garrantzitsuenak:

1982ko otsailaren 26an egindako bilkuraren 2. gaiaz honako hau dio agiriak:

Hiztegitza. Euskaltzainen goizeko bileran martxoaren 15ean Gasteizen Zuzendaritzak egindako batzarraren berri eman da. Hiztegitzako batzordea ssortzeko asmoz bide urratze bat besterik ez bada ere, batzorde horren helburuak eta mugak, hala nola bertan parte hartuko duten lankideen gaitasuna aipatu ziren. Zenbait jaun-andreen izenak ere aurkeztu ziren. Beste batez jarraitzeko utzi zen arazoa.

Gaia geldi samar zegoela dirudi, zeren eta hurrengo urteko martxoaren 23ko bilkura arte itxaron behar dugu, honako hau irakurtzeko:

Batzordeen azalpena. Hiztegitza batzordea bildu dela Gasteizen, adierazi du R. Badiolak. Aste Santua igaro arte lanean hasterik ez dago. Liburuez jabetzen hasiko dira gero eta fitategia egiten. Mitxelenak bere fitxen kopia ateratzeko baimena emana du.

Behin-behineko batzordea izan behar du, zeren eta hurrengo hilabetearen azkenaldian, Araban bertan, Angostoko santutegian egingo ziren III. Barne Jardunaldietan finkatu bai ziren batzordeak. Hara zer dion bigarren eguneko, apirilaren 29ko batzar-agiriak:

III Batzordeen egoera. Batzordeen egitekoa eta beroien arteko eremuen mugak agertu zituen J. L. Lizundiak. Batzorde iraunkorrak eta suntsikorrak berezi zituen txostenean, eta kopurua gutxitzea proposatu zuen... Iker Saileko batzordeak lau izan daitezke: **Hiztegitza**, Batzorde honetan sar daitezke: a) Maileguzko hitzak; b) **Mitxelenaren hiztegia**; c) Euskaltzaindiaren beste hiztegiak; d) hitzen normalizapenerako lanak.

Batzordekieen izendatzeak hurrengo hilean erabaki ziren. Hain zuzen, Maitzaren 23an, Pierre Lafitteren omenez, bildu bai zen Euskaltzaindia Uztairitzeko udaletxean. Irakur dezagun Batzar-Agiriaren zatia:

Batzorde eraberritzea. Angoston proposaturako batzorde eta batzordekieen zerrendak ikusi ondoren, honela gelditu dira: **1. IKER Sailekoak. 1.1. Hiztegitza.** L. Mitxelena buru, I. Sarasola buru-orde, M. Zalbide idazkari, R. Badiola idazkari-orde, X. Kintana, L. M^a Mujika eta Tx. Peillen. Batzorde honen eginkizunetan sartzen dira: **Mitxelenaren hiztegia**, maileguzko hitzen...

1984ko apirilaren 27ko Batzar-Agiriaren lehen gaian honako hau irakur daiteke:

Eusko Jaurlaritzak Autonomi Lurraldeko hiru Diputazioekin batera Mitxelena jaunaren ardurapean «**Euskal Hiztegi Orokorra**» burutzeko finantziabidea onartu duela jakinerazi zion aurreko astean J. Arregi jaunak Euskaltzainburugoa-ri. Laguntza honen funtsa honela bideratuko da: 1) Eratzaileak Euskaltzaindiarekin izenpetuko dute lehenik akordioa. 2) «Campion-Broussain S. A. Azpi elkar-

goaz eramango du Euskaltzaindiak L. Mitxelenarekin, zuzenean, ekintza honi dagozkion legezko hitzarmena. Eta 3) Eratzaileen aldetik lau ordezkariak eta Euskaltzaindiak izendatuko dituen beste laurek osotuko dute lanaren jarraipen batzordea. Euskaltzaindiak goizeko bileran gehiengoaz onartu ditu baldintza guztiak, eta aipaturiko bi lehen urratsak eman ahal izateko baimena jaso dute arduradunek. Jarraipen batzorderako izenak ematea beste egun baterako utzi da.

Urriaren 26an egindako osoko batzar-agiriak hau dio:

6. **Euskal Hiztegi Orokorraz** mintzatu da, hain zuzen berari buruzko proposamen bat egiten du Euskaltzainburuak eta luzaz eztabaidatu ondoren, jaun hauek izendatzen dira: Patxi Altuna, Alfonso Irigoien, Federico Krutwig eta Jose Maria Satrustegi. Hau atzerritik denez, honen hutsunean, behar balitz, Juan San Martin Jagon Sailburua. Ondoko bezala, arazo ekonomikoen harremanetarako soilki, Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea.

1985ko martxoaren hondarrear, Euskaltzaindia Baztanera dora Lekarozko Ikastetxean IV. Barne Jardunaldiak egitea eta Arizkunen Pello Salabururen sarrera-hitzaldia ospatzera. Bigarren egunean, 30ean, lehen gaiak honako hau dakar batzar-agiriak:

Hiztegi gintza. Txosten mardula aurkeztu zuen batzorde horretako idazkari den M. Zalbidek. Datorren 1984-1986 epealdirako egitaraua aipatzean, ekintza nagusiok atera zituen: Egiten ari diren **Orotariko Euskal Hiztegia**; eguneroko euskal hiztegi jasotzea;... Behar hauek hobeki aztertze eta finkatzeko egun osoko Jardunaldi berezi bat antolatzea erabaki zen.

Atsedenaldi baten ondoren, bi urte lehenago izendaturiko Hiztegi gintza Batzorde berberak jarraitzea erabaki zen, hots, Mitxelena, Sarasola, Zalbide, Badiola, Kintana, Mujika eta Peillen.

Aurreko lerrokadan agindutako Jardunaldi berezia, hurrengo urtean, A. Damaso Intzaren mendeurrenkari Lekunberrin antolatu genuen, urrian, baina aurretiaz, aintzinako osoko bilkura akademikoan, hots, Donostian, 1986ko irailaren 26an, Iker sailburu eta Hiztegi gintza batzorde buruak, Koldo Mitxelenak, alegia, txosten jakingarri hau aurkeztu zuen, alegia, *OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN INGURUAN* izenduna. Bost kapitulutan banatu zuen:

1. «**Zer den.** Urteak eta urteak dira batzar hauetako batean Euskaltzaindiaren hiztegiak mintzatu nintzela... 2. **Testuak.** Hizkuntza bizi deino ez du sekula hiztegi oso baterik izango... 3. **Nolakoa izango den.** Tomo edo liburu bakoitzak izango du gutxi gora-behera Corominas nahiz Corominas-Pascuelen tankera... 4. **Norentzat den eta zertarako.** Inoiz ez dio erakutsiko, hau da lehen puntua, euskal hitzen arteko aukerak nola egin. Hori zuzenean erakusteko asmorik ez badu ere, ordea, eskainiko ditu hautabiderako oinarriak... hizkuntza idatzia astiroago aztertu dugula ahozkoa baino. Nora ezean gertatu da... 5. **Zenbait osagarri.** Leku eta pertsona izenetan ageri diren lekukotasunak ez ditugu baztertu, kontuz jaso baditugu ere... Etimologia ere agertzen da zenbaitetan, bide errazetik lor dai-tekeenean...

Hizkuntzalariak bere maisutasunaz eta dogmatismo izpirik gabe txosten horretan agertzen du O.E.H.ren egitasmo akademikoa.

Arestian esan bezala, Urrian, 24an hain zuzen, egingo zuen Larraungo herriburuan Jardunaldi monografikoa. L. Villasante euskaltzainburuaren agurrari, Mikel Zalbide Hiztegitzinta batzorde idazkariaren txosten mardulak eman zion segida, izenburua: «*LEXIKO-BERRIKUNTZAREN INGURUKO ZENBAIT OHAR-AZALPEN*».

Hasi 1983an, Angoston egindako Barne-Jardunaldietatik, zeinetan sortu bai zen Hiztegitzinta batzordea eta aurreko hilabete arte zer pausu, egitasmo eta lan, bere ohiko zehaztasunez azaldu zituen. Hiru eginbehar azpimarratu zituen:

Orotariko Euskal Hiztegia (aurrerantzean **OEH**); Lexikologi Erizpideen Finkapena (aurrerantzean **LEF**); Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (aurrerantzean **EEBS**).

Guri orain dagokigun arloari mugatuz, honela hasten da:

c) Orotariko Euskal Hiztegiari 1984ean bertan eman zitzaion behin-betiko abiada. Luis Mitxelaren zuzendaritzapean eta Ibon Sarasola lagintza osoaren arduradun eragile izanik, OEH programa asi bideratua dago jadanik eta, azken orduko atzerapen bat gertatzen ez bada behintzat, ekintza sendo honen lehen uzta (800 eta 1.000 orrialde arteko liburukia) berandu baino lehen eskuarteaz izatekoa dugu. Hiztegitzinta batzordearen epe ertain eta luzerako plana prestatzerakoan *Orotariko Euskal Hiztegia* egin eta argitaratze lanari aitortu zitzaion erabateko lehenitasuna. Arrazoi sendo eta ugariak sendo eta ugariak zeuden...: bere lan-bolumen handia; euskaldungoaren erabilera zuzenerako sortuko duen emaitza osatua; gainerako hiztegi guztietako jakiniturri nagusi izatea...

Urte betera kaleratuko zen liburuki hori. Txostenak beste gai jakingarri ugari aztertzen ditu, pare bat dakarzkigu orain:

... Gidaritza hori (hiztegitzintaz ari da Zalbide) Euskaltzaindiari dagokio aurrez aurre eta bere osotasunean. Bide paraleloak era daitezke noski, eta halakorik aldarrikatzen duen euskaldun-jenderik ere ez da gure artean falta. Azken bide hori erro-errotik okera dela uste izan dut nik, eta ez dut gaur ere eritiz aldatzeko arrazoi nahikorik ikusten... Ez nioke nire azapelgintza honiamaiara eman nahi uste-aburu bat agertu gabe: **euskararen hitz-altxorra** (azpimarra geurea da) berrikuntza askozaz eginbehar zabal eta bihurriagoa da... Hiztegitzinta saiatuen buru-argitasunaz gainera bestelako faktore asko dira...

Beste zenbait osoko bilkuretan ere aztertu zuen Akademiak O.E.H. gaia baina gaurkoz horretan uzten dugu.

5. O.E.H.-REN LAN-TALDEA OSATZEA ETA HITZARTZEA

Egitasmoa ahalbideratu bezain laster, Mitxelenak lan-taldea sortu behar zuen. Ibon Sarasola bere ondokoarekin batera euskal filologian lizentziatuekin hornitu zuen gehienbat. Garai haretan Euskaltzaindiko diruzain eta Arabako ordezkari zen H. Knörr eta gu biok, idazkariorde eta ekonomi eragileok, lantokia aurkitzen saiatu ginen, behin-behingo bulego-etxe batean, baina gero, Alberto Ansola foru kultura diputatuaren laguntzaz, egun Euskaltzaindiaren Gasteizko Ordezkaritza kokatua dagoen eraikuntzaren beheko solairuan. Toki egokia, baina Mitxelena jubilatuta Donostiara bizitzen joan zelako, erabili gabe gelditu zena, geroztik Diputazioak Real Sociedad Bascongada de los Amigos delakoari lagatokia.

Juan San Martinek Euskaltzaindiaren izenean sinatu zuen 1986ko abenduaren batean hitzarmen bat Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasolarekin, hauek OEH hiztegitzaren «kontratista» legez, zeinetan, besteak beste, dioen

«... 1º REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, en su condición de COMITENTE (J. San Martín), suscribió en 16.5.84 y con diversas Entidades Públicas, convenio de financiación para la elaboración de un Diccionario General de la Lengua Vasca.- 2º Por medio del presente escrito y de acuerdo con los términos del convenio de financiación que se ha hecho referencia, COMITENTE viene a encomendar a CONTRATISTAS (L. Mitxelena, I. Sarasola) ... la elaboración para la REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA de un **Diccionario General de la Lengua Vasca** ...

Gero, ondorioz, Euskaltzaindiarekin hitzartuta lan-taldea hasieran osatu zutenak hauek dira: Isabel Arrigain, Arantxa Egia, Gabriel Fraile, M^a Jose Kerejeta, Iñaki Segurola eta Eduardo Valencia. Ibonen hasieran esandakoa birretsiko dut:

Bada Mitxelena irakaslearen lanaren alderdi bat oraindik ia-kontuan hartzen ez bada ere, oinarrizkoa dena: hain zuzen irakasle gisa egin zuena. Izan ere, bere Gasteizko ikasleak dira bere jakituria zuzen-zuzenean eguneroko harremanetan jaso duten bakarrak. Hor eman zuen Koldok bere eskolarik oparoena. Ikaslego hori gertatu da bere zientzi hil-burukoa. Horregatik, hiztegi honen argitaratzearen eskaintza heldu zenean, ikasle horien artean hautatu zituen lankideak...

Lan-talde horretatik alde egin zuten arrazoi desberdinegatik aipaturiko Isabel Arrigain, Eduardo Valencia eta M^a Jose Kerejeta. Geroago sartuko ziren Blanca Urgell, Elizabete Kruzeta, Ana Mari Loidi, Ainhoa Otamendi, Ainhoa Aranburu, Ainara Estarrona eta Amaia Olabarriak, azken bostok ere bukatu zutelarik lan-hitzarmena. Hamasei liburukiok finitu arte Euskaltzaindiarentzat lanean jarraitu dutenak hauek dira: I. Segurola, A. Egia, G. Fraile, Elizabete Kruzeta, Ana Mari Loidi eta Ainhoa Otamendi. Batzuen eta besteon izenok, gaur hemen egon edo ez, urteetako kudeaketa harremanen gazi-gozo guztiak gora-behera, aipatzea bidezkoa da, aurrenik Ibon Sarasola egitasmo zuzendaria, noski.

6. O.E.H.-REN ARGITALETXEEKIKO KUDEAKETA

Garai hartan Euskaltzaindiak ez zuen ahalmenik O.E.H. bezalako egitasmoaren emaitza erraldoiak argitaratzeko. Horregatik, Zuzendaritzak, egileari, iritzia eskatuz deliberatu zuen egokiena enkante publiko baten bidez argitalexte bati adjudikatzea. Euskaltzaindiaren ordezkariak Jarraipen batzordean planteatu zuten, Herri Aginteen ordezkariak ere begi onez ikusi eta hala erabaki.

Juan Maria Larruzea Urteaga notario jaunaren aurrean egin bai zen enkantea, hara hor nola ematen duen fede berak:

... Que la Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA acordó editar el denominado *OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA o DICCIONARIO GENERAL VASCO*, habiendo sido publicadas el pliego de condiciones en Vitoria el día 9 de Junio de 1986. Que en el domicilio de la Real Academia se han recibido las siguientes solicitudes de adjudicación, que constan en sobre cerrado: 1.- HARANBURU ALTUNA; 2.- EDICIONES MENSAJERO; 3.- DESCLÉE DE BROUWER; 4.- EDITORIAL ITXAROPENA; 5.- ELKAR, S.A. ... DILIGENCIA.- Para hacer constar que siendo las trece horas del día 6 de Agosto de 1.986, me persono en los locales de EUSKALTZAINDIA, calle Arbieta, nº 3. de Bilbao y bajo la presidencia de D. Luis Villasante Cortabitarte, y hallándose presentes D. Luis Michelena, D. Patxi Altuna, D. Mikel Zalvide, D. Ibón Sarasola, D. José Luis Lizundia y D. Juan Luis Cearreta, así como los representantes de las Editoriales se procedió a la apertura de los sobres que contenían las solicitudes de las cinco Editoriales participantes. Todas las cuales fueron leídas ...

Zuzendaritzak, opor garaia igaro ondoren, irailaren 26an, ikusirik Mensajero eta Desclée de Brouwer argitalexteek elkarrekin hiztegi bilduma osoa argitaratzeko borondatea agertzen zutela, bieki batera adjudikatzea erabaki zuen, hori bai, Mitxelari entzunda, bileran baitzen, bestalde. Hala eta guztiz ere argitalexteekin Hitzarmena sinatzeak bere denbora eraman zuen, zeren eta xehetasun ugari lotu behar baitziren. Bat aipatzekotan, hara hor zer zioen Juan San Martin diruzainak, J.J.Zearreta ekonomi eragileari zuzendutako gutun batean:

Hitzarmenaren aurreproiektua egitea argitalexte horien esku utzi genian apirilaren 23an. Aurekeztu ziguten proiektuan bi puntu hituan onar ezinak: epe aldatuta eta penalizazioa... Dena dela, arazo hauek Zuzendaritzako bileran ikusi beharko dizkiagu.

Hitzarmena sinatu zuten 1987ko azaroaren 12an A. Luis Villasante euskaltzainburuak, Akademiaren izenean eta Josu Legina eta Javier Gojeaskoetxea, Mensajero eta Desclée de Brouwer argitalexteen izenean. Ezaugarri nagusienak bakarrik aipatuko ditugu:

ESTIPULACIONES.- 1ª La Academia cede a «Editores» que aceptan, el derecho exclusivo de imprimir, publicar, difundir, distribuir y vender por todo el mundo, la obra titulada «Diccionario General Vasco»... 2ª La obra «*Diccionario General Vasco*» constará de ocho tomos, de 800 páginas aproximadamente cada

uno de ellos... 3ª La entrega del material correspondiente antes del 1º de noviembre de cada año... 6ª Los «Editores» se comprometen a distribuir la obra al menos a los siguientes puntos: a) Distribución a todo el País Vasco, a través de los canales de venta usuales b) A las principales capitales del Estado c) A las Universidades y Centros de Investigación Lingüística del Mundo...

Eta horrela hamabost estipulazio.

Lehen Hitzarmen horrek bere gora-behera guztiekin, bigarren bat behar izan zuen, liburukien atzerapen eta gehiketa guztiei aurre egiteko. Hau Jean Haritschelhar euskaltzainburu berriak sinatu zuen 1993ko urtarrilaren 26an, zinetan partaidetza zuzena izan bai zuen orduko Diruzainak, Jose Antonio Arana Martijak. Hala dio akordioak hasieran eta zati garrantzitsuean:

Reunidos, de una parte los miembros de la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia D.- Jean Haritschelhar Duhalde, Presidente de la Institución; D. Juan María Lekuona Berasategi, Vice-Presidente; D. José Antonio Arana Martija, Tesorero; y D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario y de la otra, los editores del *Diccionario General Vasco* D. Francisco Javier Gojeascoechea Arrien, en nombre y representación de Desclée de Brouwer S.A.; y D. Jesús Leguina Garay, en nombre y representación de Ediciones Mensajero, S.A.... (izandako gorabehera nagusiak aipatzen ditu dokumentuak)... 4º Que los reunidos llegar a formular el siguiente ACUERDO: 1. Que sin que el **Diccionario General Vasco** pierda en ningún caso la línea científica de su contenido mantenida hasta el presente, ni los Editores se vean obstaculizados en su labor de edición y difusión, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se compromete a gestionar el trabajo de preparación de los textos a editar, poniendo de su parte cuantos medios personales y materiales sean necesarios para este fin.- 2. Que el **Diccionario General Vasco** se compondrá de CATORCE TOMOS que se terminarán de preparar para el año 2000 ...

Zortzigarren kapituluan garatuko ditugu akordio honen segidako xehetasunak.

7. LEHEN LIBURUKIEN AURKEZPENAK

Mitxelena lehen liburukia kaleratu baino bi hilabete lehenago hil zen, urriaren 11an, hain zuzen. Urduñara joatekoa zen, Licenciado Pozaren laugarren mendeurrenkari, 1987ko irailaren 23an, II. Onomastika Jardunaldietan hitzaldi bat ematera, omenduari buruzko gai hau jorratuz: «Cuestiones acerca de la biografía de Andrés de Poza». Azken orduan gaixotu eta esan zizun ez zuela Jaurerriaren hiri historikora iristerik, deitu zigan – beretzat bazuen herri horrek beste historia bat, 1936-37ko hango frentean izana-. Eta egun gutxira, zendu zen, bere egitasmo nagusiaren lehen uzta ikusi gabe. Azkenengoz orduan hitz egin genuen elkarrekin. Zer pena!

* * *

Euskaltzaindiak oraindik ez zuen bere Egoitza berria bukaturik Plaza Barrian, baina bagenekien non nahi zuen *Orotariko Euskal Hiztegia* aurkezte, Gran Viako Foru Jauregian, zeren eta gogoan baitzuen zein erakunde izan zen Mitxelenaen hiztegirako lehen erakunde laguntzailea, Bizkaiko Diputazioa, hain zuzen. Aurkezpena ospe handiz antolatu genuen, 1987ko abenduaren 17an, batzar-aretoan. Jose Alberto Pradera diputatu nagusiaren ongietorriaren ondoren, Fr. Luis Villasante euskaltzainburuak hitzaldi sakon batez egin zuen aurkezpena. Mahaiburuko Praderaz gain, Ardantza Lehendakaria, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako foru ordezkariak eta M. Karmen Garmendia Jaurilaritzako sailburua zirelarik. Lehen lerroetan ziren Mitxelenaen alargun eta seme-alabak, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza kideak eta euskaltzain osoak; alderdi desberdinetako Bizkaiko Batzar Nagusietako bozeramaileak, Iparraldeko hautetsi bat: Miarritzeko auzapez-orde Jakes Abeberri, euskaltzain urgazle, OEH-ren lantaldeko, kazetari eta abar. Honela hasten zuen Euskaltzainburuak bere berbaldia:

Egun zoragarria hau. Hodei moduko batek goibelduko ez balu: egilea bera ez baita gurekin. Hiztegi honek argitara irten behar zuen unean bertan joan zaigu (G.B.)... Gaur kaleratzen den obra hau dugu, Koldoren ikerketalanak ekarri digun emaitzarik handienetariko bat, handiena ez bada.»Handiena ez bada» diot, ezen Mitxelena badu bere izenarekin betiko lotua geltutiko den besterik ere, esate baterako, euskararen batasuna; baina bego.

Testu mamaitua benetan, XXXIII. *EUSKERA* agerkarian irakur daitekena. Erdarazko zatitoxa ez da itzulpena eta baditu pasarte zenbait, hiztegi honen historiako jakingarriak, hara hor:

... Empecemos por los ya lejanos origenes de este Diccionario. En la sesión académica celebrada el 28 de Octubre de 1955... se hace saber que ya no esta a la venta, por haberse agotado, el *Diccionario Vasco-Español-Francés* de D. Resurrección M^a de Azkue en 2 tomos, publicado 50 años antes, gracias a la ayuda de la Excm. Diputación de Vizcaya. En la siguiente sesión, Mitxelena presenta una especie de ponencia sobre este tema de la reedición, y se le pide que traiga un plan o proyecto detallado. Por extravío seguramente no aparecen las actas de las siguientes sesiones. No hay que olvidar que por aquellos años no se publicaba el órgano *Euskera* y la Academia no llevaba una vida normal. A buen seguro fue en una estas sesiones cuando Euskaltzaindia encargó a Mitxelena la preparación de la reedición de Azkue, pero puesto al día, o sea, corregido, completado, etc...

Bistan da egoera anormal hartan - eta bazekien Villasantek, beretzat, Mitxelenaentzat eta orduko, 1955ko Euskaltzaindiaren idazkari eta legelari D. Nazario Oleagarentzat zergatik ez zen egoera normala - zergatik ez zen posible hiztegi egitasmo bat gauzatzea. «Aurrekariak» kapituluan ere aipatu dugun zerbait. Jarrai dezadan beste Euskaltzainburuaren zenbait pasarterekin:

... del Diccionario. Este poco a poco fue saliendo de sus manos de tal modo reelaborado, transformado y agrandado, que ya no era el Azkue, sino obra ente-

ramente nueva. Llegó también un día en que aquello desbordara las posibilidades de una sola persona. El autor se convenció de que hoy no se puede hacer una obra de esta naturaleza a base de fichas y cuadernos, como fue el caso de Azkue. Se hacía preciso el recurso al ordenador. Encontró también un colaborador fiel que trabajara a sus órdenes, Ibon. Por fin, Mitxelena halló también el Mecenaz, sin cuya ayuda no hubiera sido posible realizar la obra: el Gobierno Vasco y las Excmas. Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya; y, hoy mismo, precisamente antes de este acto, se ha formalizado y firmado la adhesión y participación de Navarra a esta magna obra cultural. Debo dar las gracias a nuestras autoridades, que, al patrocinar esta iniciativa, demuestran tener conciencia de su trascendencia y significación... Permittedme un desahogo. Creo que en los años que llevo al frente de la Academia éste es el día más feliz para mí. Siempre fue mi mayor preocupación al ver que esta obra, tan necesaria para la lengua y cultura vasca, se demoraba... Debo dar también las gracias a los editores Desclee y Mensajero, a quienes se les adjudicó, tras subasta, la edición. Ellos se darán perfecta cuenta, creo, de que esta obra no es sólo para andar dentro de casa, sino que se le debe dar una difusión internacional o mundial, y espero que así sabrán hacerlo.

Ibon Sarasolak *Orotariko Euskal Hiztegia aurkeztean* ospakizun berean Bizkaiko batzar-aretoko atriletik irakurri zuen txostena ere oso jakingarria da. Ez gara gu luzatuko, seguru asko, berak ere gaur zenbait pasarte errepikatu beharra izango duelako. Hala ere, pare bat pasarte dakartzkizuegu:

Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da beraz, eta ez arauemailea, ez normatiboa... Gure lana ez da liburuki hau kaleratzean bururatzeko. Eta tamalez, umezurtz gelditu den obra honen gainerako liburukiak prestatzea ez da zailtasun gabeko lana izango. Baina Koldoren lankide-taldekook ongi dakigu hau dela utzi digun betekizuna.

Mari Karmen Garmendia andreak eta Jose Antonio Ardantza lehendakaria ere mintzatu ziren lehen aurkezpen horretan, *Euskera* agerkarian irakur daitezkeenak. Aipamen bana, beraz. Hala zioen Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiak:

... Eta gaur eskuartean dugun *Orotariko Euskal Hiztegia*, neurri on batean, belaunaldiz belaunaldi kultur ondare horren transmisioa ahalik eta osatuenean mantendu eta indarberritzeko tresna egokia gertatuko dela espero dugu denok...

Lehendakariaren hitzetatik:

... azkenik, O.E.H. bideratze, nola edo hala partaide izen diren guztiei: A) Zorionak Euskaltzaindiari, bere sortaruetako eginbehar nagusi bati gogotsu erantzuten saiatzeagatik; B) Eskerrak lantaldeari, beharrezko profesionaltasunez langintzari bete-betean erantzuteagatik; C) Eta gorazarreko oroi-aipamena, bere heriotzera arte OEHren iturburu eta zuzendari izan genuen Koldo Mitxelena irakasleari. Berak erakutsi zigun, inork baino zuhurrago, herri batek bere nortasunean iraun ahal izateko, bizi nahi izatea ez dela aski: bizi-nahiari bizibideak

erantsi behar zaizkiola esan zigun berak, behin baino gehiagotan, ametsetik izate sendoko izanera igarotzeko...

O.E.H.ren bigarren liburukia 1989ko martxoaren 16an aurkeztu zen Gipuzkoako Jauregian. J. Haritschelhar euskaltzainburu berriaz landa, Imanol Murua diputatu nagusiak eta Ibon Sarasolak hitz egin zuten. Beharrezkotzat jo zen, Gipuzkoako Diputazioa, bost Herri Aginteetariko bat izanik eta lehen zuzendaria eta bigarrena gipuzkoarrak, Donostian aurkezpen hau egitea.

Durangon XXIV. Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu genuen, urteko nobedadeen artean azpimarratzekoa zelako Gerediaga Elkartek eratzailarentzat ere, 1989ko abenduaren 10an, hain zuzen, III. liburukia. Esan behar da, Mitxelenarentzat Azoka hau gune garrantzitsu bat zela euskal kulturarentzat.

Orotariko Euskal Hiztegia Nafarroan eta Araban aurkeztea ere bidezkoa zela Euskaltzaindiarentzat. Norbaitek aipatu bazuen ere liburu bat hainbeste aldiz aurkeztea gehiegi zela, ez ahantz bi Foru Administrazioak egitasmoaren babesle izanik, Akademia beraiekiko nolabait zordun zela. 1990eko abenduaren 13an, IV. liburukia zeinetan mintzaldi interesgarria egin baitzuen I. Sarasolak (ikus XXXVI *Euskera*). Aipamen soil bat egingo dugu: *Nafarroak toki berezi bat betetzen du euskararen historian, eta alde honetatik, gure Hiztegiaren zereginetan. Erdi Aroko, Erdi Aroan edo Erdi Aroari dagokionez erabiltzen dugun ia material guztiak, Nafarroari dagozkio... Eta are gehiago, eman dezagun XVIII. mendearen erdi alde arte edo, ez ditugu Hegoaldean, Beriain bezalako autorerik...». V. liburukia, Araban, 1992ko urtarrialaren 31an, Alberto Ansola Arabako diputatu nagusi mahaiburu zela aurkeztu zen Floridako Kultur-etxean 1992ko urtarrialaren 31n. Bosgarren hau «transizio alea da» esan zuen I. Sarasolak.*

LUIS MICHELENA

DICCIONARIO GENERAL VASCO
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

XVI

Ut~Z



Real Academia de la Lengua Vasca
EUSKALTZAINDIA

BILBAO 2005



Editorial Desclée De Brouwer, S.A.
Hirao, 6 - 48009 BILBAO

Ediciones  Mensajero

Sascho de Arpetita, 2 - 48014 BILBAO

8. V.enetik XVI. LIBURUKIEN ARTEKO IBILBIDE LABURTUA

Geroztikako Zuzendaritzaren babesa, batez ere Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren eta Jose Antonio Arana Martijarena – honek sartutako orduak eta orduak eta artxiboa ezinbestekoa izango zaigu)–, baita Jose Mari Satrustegi, Juan Mari Lekuona eta Patxi Goenagarena, ahantzi gabe azken garaiko Henrike Knörr –(honek bi Zuzendaritan ardura desberdinak izan zituen)–, Andres Urrutia –(Zuzendaritzako eta euskaltzain oso izan baino lehenago bere izena agertzen zaigu batzorde Juridikoan aholkulari legez, 1991a geroztik)– eta Beñat Oiartzabalena oso eskergarri suertatu zaigu Hiztegi honen kudeaketa azken zenbakiraino eramateko. Noski, beste aldetik, alegia, Hiztegiaren bulegotik, Ibon Sarasola zuzendariaren eta lantalde osoarena ere ezinbestekoa gertatu zaigu.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENEAN: HIZTEGIAK GAUR

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2005-XI-17

*Idoia Zenarrutzabeitia,
lehendakariordea*

Eskerrik asko. Itzelezko sarrera izan da eta lehenengotan arratsaldeon edo arrastion nire herrian esaten den moduan, guztioi eta eskerrak ekitaldi honetara gonbidatzeagatik.

Pozgarria egiten jat gaur hemen egotea, ez dalako hain sarri gertatzen ekitaldi baten nigan, Idoia modura nago berbetan orain, bi asmo bateratzea. Bata, euskaltzale lez, nik Euskaltzaindia ezagutzeko neukan gogoia eta beste, bisita hau, hain bere biziko aurkezpen baten inguruan izatea. Hainbat urtetako lanaren ondotik, Orotariko Euskal Hiztegia, Euskaltzaindiaren egitasmo nagusietariko bat burutu da, abentura hau hasi zuena harro egongo zen gaurko ekitaldiagaz eta nik ikusten dodan modura, euskara bera be, harro sentitu beharko litzateke, 16 liburutako etorkizunera zabaltzen den leiho honen ondoren.

Benetan Orotariko Euskal Hiztegia lan itzela izan da, 35 urte iraun daben bide luzean zehar, asko izan dira proiektu honetan parte hartu daben pertsonak, hemen aipatu dira, eta erabili diren diru baliabideak, metroak edo kilometroak, ia ez dakit, edozein kasutan eta arlo honetan ezin dot ahaztu erakunde publikoen laguntza ezinbestekoa ezin dela, lehen aipatu da.

Aurrera begira zer gelditzen jaku gaur?, nire iritsiz gauza bi, bata, euskaltzaleon buruan betirako finkatuta geldituko dan imajina bat, ikono bat, ia-ia, eta beste alde batetik, erronka bat. Imajina hauxe, Orotariko Euskal Hiztegiaren enbrioi bezala, Koldo Mitxelena zapata kaxetan fitxak gordetzen; Ibon Sarasolari burua grisatzen jakon bitartean eta erronka hauxe, 1970. urtetik gaur eguneko teknologi berrietara mundua dezente aldatu denez, burututako lana sekulakoa izanik ere, emaitza horren gizarteratzeak, gero eta derrigorrezkoagoa egin dala. Ziur nago erronka honen aurrean ere Euskaltzaindiak ekin eta jarraitu egingo diola, gure laguntza izango dau, betiko modura. Horregatik hiztegian parte hartu daben guztiei zorionik beroenak. Euskaldunok beste pausu bat emango dogu eta edozein kasutan holan hasi naz eta holan amaituko dot.

Mila esker danori eta mila esker gonbidatzeagatik.